

Prentsa oharra

Nota de prensa



26 ikastetxeko 30 konpainiek hartuko dute parte haurren danborrada sinbolikoan

Udalak hainbat ekitaldi antolatuko ditu San Sebastian Egunaren inguruan, osasun egoerari eta indarrean dagoen araudiari egokituta

Hiritar Merezimenduaren Dominak eta Urrezko Danborra ekitaldi bakarrean emango dira urtarrilaren 19an Victoria Eugenia Antzokian

Donostiako Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu San Sebastian Egunaren inguruan, horietako bakoitza egungo osasun egoerara egokituz eta indarrean dagoen araudia betez.

Jon Insausti Kultura zinegotziak adierazi duenez, “nahiz eta erabaki zaila izan helduen danborrada edo banderaren igoera eta jaitsiera bezalako ekitaldi esanguratsuak bertan behera uztea, Udaletik beste ekitaldi batzuk egokitu eta mantendu ahal izateko lan egin dugu, hala nola haurren danborrada, txistularien kontzertua edo egun horren inguruan egiten diren sarien banaketak”.

Haur Danborrada

26 ikastetxetako 30 konpainiek onartu dute ohikoa ez den izango haurren danborrada beste formatu batean egiteko Udalaren proposamena. 2.965 haur izango dira Donostiako kaleetan zehar desfilatuko dutenak urtarrilaren 20an, ohiko haur danborradaren %63a.

Loiolako Erriberak, Erdialdea, Gros, Bidebieta eta Antigua auzoak hainbat kale itxiko dituzte haur danborradako konpainiek Sarriegiren doinuekin batera euren danbor eta upelak astintzeko. Hauek ibilbide desberdinetan banatu dira, eta eguerdiko 12:00etan desfilatuko dute:

- **Amara – Loiolako Erriberak:** Pablo Gorosabel, Bartzelona hiribidea, Gregorio Ordoñez, Corsarios Vascos, Gregorio Ordoñez, Bartzelona hiribidea, Pablo Gorosabel.
- **Erdialdea:** Bulebarra, Hernani, Loiola, Arrasate, Getaria, Askatasunaren hiribidea, Idiakez, Legazpi, Bulebarra.
- **Gros:** Nafarroa Etorbidea, Zurriola, Lapurdi, Zurriola, Nafarroa Etorbidea.
- **Bidebieta:** Salvador Allende, Serapio Mujika, Julio Urquijo, Serapio Mujika, Salvador Allende.
- **Antigua:** Zumalakarregi Etorbidea, Tolosa Hiribidea, Mauleon, Tolosa Hiribidea, Zumalakarregi Etorbidea.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Urrezko Danborra eta Hiritar Merezimenduaren Dominak

San Sebastian Eguna dela eta Udalak ematen dituen sariei dagokionez, aurten ohikoa ez den beste formatu batean egingo dira. Urrezko Danborra eta Hiritar Merezimenduaren Dominak ekitaldi berean emango dira, urtarrilaren 19an, 19:00etan, Victoria Eugenia Antzokian.

Kokapen berri honi esker, edukierari dagokionez osasun neurriak bermatu ahal izango dira, eta egungo dekretua bete ahal izango da. Oraingo honetan, ikusleen kopurua mugatua izango da, baina ekitaldia herritarrei irekita jarraituko du. Bertara joan ahal izateko, gonbidapen bat eskuratu beharko da, doan, Donostia Kulturaren sarrerak saltzeko plataformaren bidez (<https://tickets.donostiakultura.eus/selection/event/date?productId=101815846494>) gaurko 11:30etik aurrera edo Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletan, ohiko ordutegian (11:30-13:30 / 17:00-20:00), edukiera bete arte.

Ekitaldiaren sarreran derrigorrezkoa izango da COVID pasaportearen aurkeztea eta maskara uneoro eramatea.

Udal Txistulari Bandaren aldeko kontzertua

Formatu egokitua izango duen beste ekitaldi bat Udal Txistulari Bandaren San Sebastian aurreko kontzertua izango da, urtarrilaren 16an, igandea, 12:00etan Antzoki Zaharrean.

Gonbidapenak gaur ostirala eta bihar larunbata bitartean eskatu ahal izango dira Victoria Eugenia Antzokiko leihatiletan, ohiko ordutegian (11:30-13:30 / 17:00-20:00). Agortu ezean, Antzoki Zaharreko leihatiletan ere egongo dira eskuragarri kontzertua hasi baino lehen.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 14a